


Galerna



Augustin Zubikarai beka

Egilea: Iratxe Esnaola

Bilduma: Literatura 294

Salneurria: 11,00 €

Orrialde kopurua: 92

Kaleratze data: 2010eko martxoa

Abuztuko azken eguna da itsasertzeko hiri turistiko batean; beroa jasanezina da, eta galerna datorrela antzematen da. Giro sargori horretan lau pertsonaia: Nora eta Sebastian Bechener, batetik, adin ertaineko turista bikotea, bata besteaz aspertuak eta sentsazio berrien bila, zer nahi duten argi ez badakite ere; hoteleko zuzendaria eta bere alaba nerabea, bestetik, nora ezeko uharte banatan sartuak, ametsaren eta errealtatearen arteko arrakalan eroriak. Lauren arteko harreman sare bat hedatuz doa, gero eta nahasiagoa, guztiak ere korapilatuko dituen.

Erritmoaren erabilera zehatzez eta tentsioari une oro eutsiz, sentimenduen biluzte-ariketa bikaina egin du egileak Augustin Zubikarai nobela labur saria irabazi duen lan honetan.

Erromantizismoaren antipodetan, pertsonaiekiko distantzia nabarmen uzten duen idazkera hotz eta zorrotz baten bidez, opera prima batean harrigarria den trebezia erakusten digu **Iratxe Esnaolak**, eta bihotzaren barrunbeen ezagutza sakona.

Iratxe Esnaola Donostian jaio zen 1983an. Kazetaritzan lizentziatua da EHU, eta Literaturaren Teorian eta Literatura Konparatuan Granadako Unibertsitatean. Gaur egun unibertsitateko irakaslea da Txileko Santiagon. Hauxe du argitaraturiko lehen lana.

Idazlearekin harremanetan jartzeko: Iratxe Esnaola trukituki@hotmail.com

